

Larunbata, 2009ko azaroak 7 - 09:17

Euskal Herria

bilatu... Bilatu

[Hasiera](#) | [BerriaTB](#) | [Parte Hartu](#) | [Blogak](#) | [Bereziak](#) | [Kanalak](#) | [Zuzenekoak](#) | [RSS](#) | [E](#)

[Paperekoa](#) | [Iragarki laburrak](#) | [Hitza](#)

Euskal Herria | [Ekonomia](#) | [Mundua](#) | [Kirola](#) | [Kultura](#) | [Hemeroteka](#) | [Zerbitzuak](#)

Berria.info » Euskal Herria



12-tik 7.a Euskal Herria-n

« Aurrekoa

Hurrengoa »

ARKEOLOGIA

Iruña-Veleia aztarnategian aurkitu dituzten euskarazko idatzien zantzuen gainean zuhurtasuna eskatu dute proiektuko arduradunek

Munduan parekorik ez duen erromatar garaiko multzo epigrafikoa eta III.mendeko kalbario bat, munduko zaharrena, aurkitu zuten Iruña-Veleia aztarnategian. Bertako arduradunek atzo eman zuten aurkikuntzaren berri. Gaur, =Diario de Noticias de Alava eta Diario de Noticias de Gipuzkoa=i egunkariak plazaratu dutenez, aztarnategi horretan bertan III.mendean euskaraz egindako idazkiak ere aurkitu dituzte.

Berria.info 2006-06-09 - 18:25:31

Gaiak:

Bozkatu | Emaizta | 0 boto

Hala ere, Iruña-Veleia aztarnategiko arduradunek ohar baten bidez jakinarazi dute aurreratu diren hainbat datu okerrak direla. Oraingoz hipotesiekin ari dira lanean eta datuak aurreratzea ikerketaren berezko dinamika hankaz gora jartzea izango litzateke.

Besteak beste, karbono 14aren frogaren behar diote adituek oraindik eta Iruña-Veleiako euskarazko idazki horiek III.mendekoak direla baieztatzen badute orain arte ezagutzen diren zaharrenak izango lirateke. Arduradunek horrelako kasuetan zuhurtzia osoz jokatzeko beharra azpimarratu dute.

Aztarnategiko arduradunek baieztatu dute Iruña-Veleian aurkitutako bigarren multzo epigrafikoan antzinako euskaraz idatzitakoak izan daitezkeenak aurkitu dituztela. Oraingoz, lanerako darabilten hipotesiaren arabera, erromatar garai berantiarrean kokatu daitezke. Bestelako datuak zabaltea, ikerketaren berezko garapena hankaz gora jartzea litzatekeela azpimarratu dute. Berezi eskatu diete hedabideei, horrelako aurkikuntza garrantzitsuak baieztatzeko adituek denbora behar dutela kontutan izan dezatela.

Orain arteko datuen arabera, euskarazko idazki zaharrenak XI.mendekoa dira Errioxako San Millan de la Cogollako monastegian aurkitutakoak. Gaur goizean, bi egunkariak kaleratu dutenez Iruña-Veleiako idazki horiei egin dizkieten lehen azterketen arabera kristautasunari buruzkoak dira.

Aurkikuntza hau baieztatzen bada, euskararen lehen lekukotasuna orain uste duguna baino zortzi mende lehen kokatu beharko litzateke, III.mendean hain zuzen.

Albiste honen aurrean, Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua zuhur agertu da. Adituei, idazkiak ikertzeko denbora eman behar zaiela azpimarratu du Azkaretek eta ondoren, datuak baieztatzen badira, ondorioak ateratzeko beta izango dugula azaldu du.

HANDITU | TXIKITU

INPRIMATU

POSTAZ BIDALI

ALBISTEA ZABALDU

Blogak

Duela 54 minutu idatzia



TXINPANTZE BILUZIA

Juan Ignacio Perez Iglesias*Hirugarren kultura*

Duela 7 minutu idatzia



KONPONBIDEAREN TALAIA

Pello Urzelai

6.290

Duela 17 minutu idatzia



ESKUORRI GALDUA

Oier Guillan*Hiru La Zaranda*

Albisterik...

IRAKURRIENAK

Bozkatuenak

Bidalienak

- 1 'Egunkaria libre!' aldarrikatu dute musikariak Donostian
- 2 Bahitzaileek atzo Somaliara eraman zituzten hiru arrantzaleak berriro 'Alakrana'-n daude
- 3 Dimitri de Fauw txirindulariak bere buruaz bertze egin du
- 4 Laffage itota hil zutela baieztatu dute auzitegiko medikuek
- 5 Abertzaletasun instituzionala indartzeko ituna proposatu du Hamaikabatek

[Hasiera](#) | [Euskal Herria](#) | [Ekonomia](#) | [Mundua](#) | [Kirola](#) | [Kultura](#) | [BerriaTB](#) | [Parte Hartu](#) | [Blogak](#) | [Bereziak](#) | [Paperekoa](#) | [RSS](#) | [E](#)

© Berria.info - Euskal Editorea S.L.
 Martin Ugalde Kultur Parkea, Andoain 20140
 Telefonoa: 943 304 030 / Faxa: 943 590 172
 berria@berria.info - www.berria.info
 Lege Informazioa



Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia
 Diputación Foral de Gipuzkoa